

## MUNDUAREN TALAIAN

*Koldo ALDABE*

### *1994, abendua Egunez Egun*

**1) Zedillo lehendakari Mexikon:** Ernesto Zedillok, abuztuko hauteskundeetan Lehendakaritza eskuratu zuen hautagai ofizialak, lehendakari kargua hartu zuen. Zedillok Chiapasko krisiari irtenbide negoziatua emango ziola agindu zuen.

**2) Libanoko lehen ministroaren dimisioa:** Rafik Hariri Libanoko lehen ministroak dimititu egin zuen, herria berreraitzeko gestioetan egin zituen hankasartzeengatik jasotako salaketan ondorioz.

**4) Asilo eskubideak murriztuta Suitzan:** Asilo bila dabilzatenen eskubideak murrizten dituen atzeritarren legea onartu zuten suitzarrek erreferendumean. % 72,8k bozkatu zuten alde.

**6) Zapatistek su-etena hautsi:** EZLNk hautsitzat jo zuen urtarrilean indarrean sartutako su-etena. Gerrilariak Lantandona oihanean sartu ziren eta bertako herriak okupatzen hasi.

**Antonio di Pietroren dimisioa:** Antonio di Pietro Italiako 'Esku Garbiak' operazioko buru nagusiak dimititu egin zuen, Gobernutik ustelkeriaren aurkako kasuak ez epaitzeko jasan zituen presioak salatuz. Biharamunean milaka italiarrek elkertasuna adierazi zioten.

**9) Sinn Fein-Londres elkarrizketen hasiera:** Sinn Fein alderdi politiko errepublikarra eta Londresko Gobernuaren arteko elkarrizketari hasiera eman zitzaion, Ipar Irlandaren baketzea helburu. Egutegia ezartzeko bilera teknikoa izan zen.

**10) Bake Nobel sariak:** Iasser Arafatek, Yitzhak Rabinek eta Simon Peresek Bake Nobel saria jaso zuten Oslon, "Ekialde Erdiaren baketze prozesuan egin duten lan garrantzitsuagatik".

**11) Errusiaren eskuhartzea Txetxenian:** Hilabeteetan zehar Txetxenian oposizioko talde armatuak finantzatu eta laguntza militarra eman ondoren lortu nahi zen helburua -Djokhar Dudaiev boteretik kentzea- ez baitzen bete, Boris Ieltsin Errusiako lehendakariak Txetxenia hartzeko agindu zion Armadari.

**15) Gobernu berria Dublinen:** Fianna Gael eta laboristek osatutako Gobernuaren buru izendatu zuten John Burtton. Fianna Fail oposiziora pasatu zen. Koalizio berriak Ipar Irlandaren baketze prozesuan atzerapausoa ekar zezakeela esanez aurreko egunetan kaleratu zen informazioa gezurtatu nahian, Burtton Gerry Adams Sinn

Feingo buruarekin bildu zen hurrengo egunean.

**17) Ieltsinen mehatxua:** Djokhar Dudaiev Txetxeniako lehendakariari emandako ultimatuma amaitu ondoren Ieltsinek txetxeniarrak “suntsitzeko” mehatxua egin zuen.

**18) Jimmy Carter Sarajevon:** EEBBetako Gobernua ez duela ordezkatzeko argi utzita, Jimmy Carter EEBBetako lehendakari ohia Sarajevora iritsi zen Bosniako gerrako hiru aldeetako buruzagiekin hitz egin eta suten akordioa izenpetzeko artekari lanak egitera.

**21) Zedilloren “borondate oneko keinua”:** Ernesto zedillo Mexikoko lehendakariak “borondate keinua eginenez” onartu egin zuen Chiapasko krisiari amaiera emateko Samuel Ruizek gidatzen duen taldeak bi aldeen artekari lanak betetzea. EZLNk egun gutxi geroago su-etena berrezarri zuen.

**22) Berlusconiaren dimisioa:** Silvio Berlusconi Italiako lehen ministroak dimisioa aurkeztu zuen eta hauteskundeak aurreratzeko eskaera egin zion Scalfaro presidenteari. Berlusconi ez zuen dimititzea beste aukerarik, bestela Parlamentuan aurkeztu ziren zentsura mozioak galduko baitzituzkeen eta beste lehen ministro bat jarriko baitzuket bere lekuan.

**28) Islamisten heriotza mehatxuak katolikoentzako:** Talde Islamista Armatuak (GIA) heriotza mehatxua egin zuten katoliko guztiei Algerian. Bezperan lau Aita Zuri hil zituen GIAk, aste horretan lau islamistak Air France konpainiako hegazkin bat bahitu eta Frantziara desbideratu ondoren bahitzaileak hil zirelako mendekua hartuz.

**30) Hondamendi ekologikoa Txetxenian:** Errusiako Armadak egindako bonbardaketan petrolio findegi bat suak hartu zuen Txetxenian eta hondamendi ekologiko itzela eragin. Moskuk garrantzia kendu zion suturei.

**Pilotu amerikarra aske utzi zuen Pyongyangek:** Ipar Koreako Gobernuak aske utzi zuen Bobby Hall pilotu estatubatuarra. Abenduaren 17an Ipar Koreako Armadak EEBBetako helikoptero militar bat lurrera bota zuen eta Hall preso hartu zuten. Krisia piztu zen Washington et Pyongyangen artean, gertakari hori zela eta. EEBBetako ordezkari batek eginiko negoziaketan ondoren utzi zuten aske pilotu estatubatuarra.

**31) Errusiar Armadaren porrota:** Urtezahar gauean Grozni hartzeko ‘azken erasoan’ izugarrizko porrota jasan zuen Errusiako Armadak. Tropak hiri barruraino sartu baldin baziren ere, de-



fenditzaile txetxeniarrak gerrila estrategiekin erraz menperatu zituzten bertara 250 tanke eta ibilgailu blindatuekin sartu ziren tropa errusiarrak.

**Mila egun Bosniako gerrak:** Mila egun bete zituen 1992ko apirilaren 7an

Sarajevoko bakea hautsi zuten tiroekin batera hasi zen Bosniako gerrak. Mila egun horietan, ehundaka mila lagun hil dira, eta milioika zauritu eta errefuxiatu.

## Hileko Gaia: Ieltsin Izugarria

Izugarria. Kalifikatibo hau gauza askok dute egunotan Txetxenian. Izugarria da Grozni Txetxeniako hiriburuaren izena euskaratuta; izugarria da Armada errusiarrak bertan egin duena; izugarria defentsa txetxeniarrak erakutsitako adorea eta izugarria Boris Ieltsin Errusiako lehendakariak Armada txetxeniarra "zanpatu eta deusezteko" eman duen azken agindua.

Hilabete luzeetan Djokhar Dudaiev Txetxeniako lehendakaria boteretik kentzeko bertako oposizio armatua finantzatu eta laguntza estrategikoa eman ondoren, Kremlinak zuzenean hartu zuen abenduan eginkizun hori. Garaipen azkarra lortzeko Ieltsinek zuen presa Pavel Gratxov Defentsa ministroari kutsatu zion, eta honek planifikazio gutxiarekin Grozniren aurkako 'azken eraso' inprobisatua egin behar

izan zuen: 70.000 soldadu, seiehun tanke eta ibilgailu blindatu eta Txetxeniaren aurkako airezko etengabeko bombardaketak ez ziren nahikoa izan Grozni hartzeko.

Txetxenian interesak ditu Moskuk, eta ez dira txikiak bere ikuspuntutik begirata. Interes politikoak, alde batetik Errusiaren desegituraketa arriskuak desagertarazteko eta bestetik Ieltsinek Kremlinaren duen agintea indartzeko. Interes ekonomikoa, Azerbaidjango petrolioa Errusiako oliobide bidez kontrolatzeko, horretarako nahitaez Txetxeniako oliobideak behar baititu.

Bere helburuak inondik ere lortu gabe, Ieltsinek jipoiak jaso ditu alde guztietatik. Frontean porrot galantak jasan ditu Armadak. Moskun, bere inguruko lider intelektual guztiek aldegin diote eta prentsak eta komunikabideek oro har

gogor kritikatu dute. Txetxeniara bidalitako soldaduen gurasoek manifestaldiak egiten dituzte euren seme-alaben itzulera eskatuz. Gero eta gehiago dira Txetxenia bakean uzteko exigitzen duten ahotsak. Ieltsinek, ordea, ez die orain arte ez barneko ez kanpoko kritikei jaramonik egin.

Errusiako lehendakariak ez du sekula zalantzarik izan bere agintearen gaitasuna auzitan jarri dutenen aurka indarra erabiltzerako orduan. Hala egin zuen 1993an Aleksandr Rutskoik eta Ruslan Khasbulatovek -azken hau txetxeniarra da- gidatutako diputatuek Errusiako Parlamentuaren egoitzan burutu zuten 'okupazioa' deuseztu zuenean, eta hala egin du Txetxenian, agian berak uste baino garestiago aterako zaion arren.

Mendebaldeko potentziak arduratuta daude Ieltsinen jokabide horretaz. Sobiet Batasuna desagertu zenean Errusiako ekonomi birmoldaketari eta demokraziari laguntzeko dirutzak agindu eta dagoeneko eman ere dizkiote Ieltsini, 1991ko Estatu kolpe saialdian tankeei aurre egin eta Parlamentua defenditu zuen lehendakariari. Baina gaur hartako Ieltsin ez da gaur egungoa. Lagun desegokiak aukeratu ditu Errusiako lehendakariak oraingoan eta Mendebaldea ez dago prest edozein

preziotan Ieltsini laguntzen jarraitzeko. Mezu hori bidali dio Europako Batasunak, Moskurekin hitzartutako laguntza ekonomikoak izoztu dituelarik. Estatu Batuetako Gobernuak ere antzeko mezua bidali dio Ieltsini. Mendebaldeak, ordea, badu arazo bat: ez du Ieltsin baino ordezko hoberik ikusten Errusia gidatzeko.

#### Lur sakratuak

Urtea amaitu aurretik ez zen falta izan palestinar eta israeldarren arteko eztabaidarik. Oraingoan Belengo Batem Mussai mendiko lurren jabetzen inguruko istiluak izan ziren. Kolono juduen Efratako asentamendua handitzeko asmoa zuten bertan, baina palestinarrek lurralde horiek eurenak zirela aldarrikatu zuten. Borroka izan ziren, Armada tarteko, eta Israelgo Gobernuak debekatu egin behar izan zuen asentamendua eraikitzea. Istiluak, dena den, ez dira amaitu.

## 1995, urtarrila Egunez Egun

**1) Sarraskia Txetxenian:** Milaka lagun hil ziren Errusiako Armadak Grozni hiriburua kontrolpean hartzeko asmoz egindako eraso bortitzean. Indar federaletan, baina, atzera egin behar izan zuten. Bi egunen buruan leltsinek bombardaketak eteteko agindua eman zuten, baina berriz ere jan egin zuten emandako hitza. Orduz gero ez dira eten bombardaketak. Hilaren 11n, leltsinek Pavel Gratxov Errusiako Defentza ministroari botereak kendu zizkion Txetxenian porrot egiteagatik. Haren ardura leltsinek berak hartu zuten.

**3) Liskar larriak Gazan:** Lau polizia palestinar hil ziren Gaza autonomoan Israelgo Armadarekin izandako enfrontamenduetan. Egun berean Hamas talde islamikoko bi kide hil zituzten soldadu israeldarrek, eta bi egun geroago Palestinaren Askapenerako Fronte Popularreko lau gerrilari. Gaza eta Jerikoko autonomia indarrean jarri zenetik biktima kopuru handieneko astea izan zen hura.

**6) Joe Slovoren heriotza:** Hego Afrikako Alderdi Komunistako lehendakaria eta apartheid-aren kontrako buruzagi zuria zendu zen minbiziz.

**9) Beste istripu bat Txinan:** Lehergaiz betetako bi trenen eztandak abenduan

ehundik gora lagun hil zituela jakinarazi zuten Pekinen argitaratzen diren egunkariek.

**11) Kolono eta palestinarren arteko liskarrak:** Kolono israeldar eta nekazari palestinarren artean enfrontamendu larriak piztu ziren Alei Zohar inguruan, juduak asentamendu berria erakitzen hasi zirenean palestinarrek eurentzat jotzen dituzten lurretan. Bi aste epean sorturiko hirugarren liskarrazen hura.

**13) Gobernu berria Italian:** Oscar Luigi Scalfaro Italiako lehendakariak Lamberto Dini Forza Italiako kideari eman zion gobernu berria osatzeko aukera. Dinik hiru egunen buruan aurkeztu zuten teknika osatutako exekutiboa. Berlusconiaren aliatuek Diniren kontra gogor egin zuten arren, eskuindarren abstentzioari eskerrak lortu zuten Dinik Parlamentuaren konfiantza.

**Algeriako oposizioa bat eginda:** Komunikatu bateratua zabaldu zuen Algeriako oposizioak. Aste osoa Erroman bilduta eman ondoren, preso politikoak askatu eta Algeria berriz ere demokraziaren bidean jartzeko eskatu zioten Gobernuari. Agintetik, ordea, ezezkoa eman zieten berriz ere.

**15) Lurrak orro egin zuen Koben:** Richter eskalan 7,2 graduko indarra izan zuen lurrikarak gogor astindu zuen Japoniako hiria. Hondamendiaren ondorioz 5.200dik gora lagun hil ziren, eta 95.000 milioi dolarreko kalteak zenbatu zituzten.

**Ezgonkortasun politikoa onera bi-dean Mexikon:** Politika erreformatzeko akordioa sinatu zuten Alderdi Iraultzaile Institutuzionalak (PRI), Ekimen Nazionalerako Alderdiak (PAN) Alderdi Iraultzaile Demokratikoak (PRD). EZLN-k su-etena eperik gabe luzatuko zuela iragarri zuen egun berean.

**19) Delorsen agurra:** Jacques Delors-ek Europaren batasun federala defendituz esan zion agur hamar urtetan bere ardurapean izan duen Europako Batzordeari.

**22) Bake akordioa arriskuan:** Jihad Islamikoak jarritako bi bonbak (Bet Lideko bidegurutzean bata eta Tel Aviveko iparraldean bestea) 19 lagun hil zituzten. Israelgo Gobernuak Gaza eta Zisjordaniako mugak itxi egin zituen ondorioz.

**23) Cavaco Silvaren erretiratzea:** Cavaco Silva Portugalko lehen ministroak aurki politika utzi egingo duela iragarri zuen.

**24) Protestaldiak El Salvadorren:** Desmilitarizatutako militarrek Parlamentua eta beste bi egoitza publiko hartu zituzten indarrez, gobernuak zor dizkien kalteordainak berehala jaso ditzaten exigitzeko.

**Clintonen elkarlanerako deia:** Bill Clinton Estatu Batuetako lehendakariak elkarlanean aritzeko eskaintza egin zien berriz ere errepublikarrei, urtero herritarrei zuzentzen dien mezuan.

**27) Sarajevo askearen alde:** Sarajevoren kontrako erasoak mila egun bete zituela ekarri zuten gogora Bosniako hiriburuan mundu osoetik etorritako 250 pertsonalitatek.

**Peru eta Ekuador gerraren atarian:** Enfrentamendu larria lehertu zen 1942 urtean Rion sinatutako protokoloak zehazten duen 78 kilometroko muga tartean.

**28) Estatu Batuak eta Vietnam harremanetan berriz:** Bi herrialdeetako ordezkariak Washingtonen eta Hanoin egoitza diplomatikoak zabaltzeko akordioa sinatu zuten.

**29) Neofaxistak liberal bihurturik:** Aliantza Nazionala alderdi bihurtu zen. Izaera neofaxista alde batera utzi eta alderdiari izaera liberalagoa eman nahi izan diote.

**Uholdea Europan:** Azken 40 urteotan izandako uholde handienak urpean utzi zuen Europako iparraldea. Hondamendian 30 lagun hil dira bederen.

**30) Atentatuak etenik ez Algerian:** GIAko suizida batek gidatutako bonbauto batek 38 lagun hil eta 250etik gora zauritu zituen Alger hiriburuan.

## Hileko Gaia: Zentzu pixka bat kaosaren barnean

Kobeko lurrikarak eta Frantziak, Alemaniak, Holandak eta Belgikak jasan dituzten uholdeek ongi asko erakutsi digute zein txikia den gizakia eta aurre-rapen handiak egin diren arren oraindik zeinen urrun dagoen natura menderatzeko. Ezbehar naturalez gain, bi gerra, Txetxeniakoa eta Peru eta Ekuador arteko mugakoa, gizakiaren burugabekeriaren adierazgarri.

1941eko gerran Peruk Ekuador inbaditu zuenetik dirauen gatazka oraindik konpondu gabe egoteak aldian behin enfrentamendu armatuetera eramanez dituzte mugaz bi aldeetako armadak. Urtarrilaren 26an hasi ziren azken enfrentamenduen zergatiak, ordea, gatazka horretan baino gehiago herrialde bakoitzeko barne arazoetan gehiago oinarritzen direla dirudi. Barne arazoak estaltzeko gerra bat asmatu behar izango balute bezala. Erreakzioa berehalakoa izan da: ekuadortarrek eta peruarrek ahaztu egin dituzte Quito bizi duten krisi ekonomiko larria eta Liman apirilean egingo diren Lehendakaritza hauteskunde kanpaina, guztiek pa-

triotismoaren bandera altxatzeko. Bi herrialde horietatik kanpo anaien arteko gerra bezala ikusten dena, etsairik porrokatueneren arteko borrokatzat jotzen dute barruan. Krisiari amaiera emateko saialdi diplomatikoez porrot egin dute, bi aldeetatik bakar batek ere ez duelako enfrentamendua "oraingoz" amaitu nahi izan. Baina benetakoak al dira borroka horiek? Ekuador eta Peruren artean zehaztu gabe dagoen 78 kilometroko muga lerrora ezin izan dira iturri independenteak hurbildu. Enfrentamenduen berri parte militarrek eta gobernu iturriek bakarrik eman dute. Alde bakoitzak bestearen erabat aurkakoa den bertsioa eman du gerra honi buruz, eta bat egiten duten puntu bakarra batak besteari egia ez esatea leporatzea da.

Iturri independenteen lekukotasunak, Txetxeniako gerran, balio izan du Errusiako Armadaren eta Moskuren azpiko begi-bistan uzteko. Dena kontrolpean zutela zioten urtarrilaren hasieran, baina prentsak eta joan zen astean Europako Segurtasun eta Koopera-

ziorako Erakundeko (OSCE) ordezkari-ritzak tropa errusiarrek egindako giza eskubide bortxaketa nabariak salatu zituzten. Datorren larunbatean bigarren hilabetea beteko du gerra horrek, eta nazioartearen erreakzio nabari bakarra Errusia Europako Kontseiluan sartzeko negoziazioak etetea izan da, Jugoslavia ohian gerra hasi zenean Europaren erreakzio bakarra Jugoslavia Europako Komunitatean sartzeko negoziazioak etetea izan zen bezala. Gero Vukovar, Dubrovnik, Sarajevo, Mostar eta Srebrenica etorri ziren. Orain berriz, Grozni eta laster Gudermes etorriko da. Gerra horretan zentzu pixka bat eta balore handia izan dutenak Moskuk bidalitako soldaduen amak izan dira, gerrara joan eta euren erraietatik irtendako fruituak ahal den moduan gerratik atera arte etsi ez dutenak. *Matuxka* hauek Moskuri ezezik mundu osoari ere erakutsi diote ezein gerrak ez duela inoren seme-alaben galtzea merezi.

### Akabo Kobe

Japonian azken mende erdian izan den lurrikararik handiena jasan zuen Kobe hiriak joan zen urtarrilaren 15ean. 5.200 lagun inguru hil ziren, 300.000 etxerik gabe geratu ziren eta kalte materialak ia ehun mila milioi dolarrekoak izan dira. Japonian hain famatuak diren lurrikaren aurkako neurriak eta hauei aurre egiteko moduko eraikuntzak alferrikakoak izan ziren lurrikara gunen nagusitik urrun dagoen hiria eta herritarrak salbatzeko. Japoniako ekonomiak ere lurrikara honen ondorioak jasango ditu datozen urteetan.





*1995, martxo*

*Egunez Egun*

**1) John Major estuasunean:** Erresuma Batuko lehen ministroak ozta-ozta gainditu zuen Alderdi Laboristak Gobernuak Europarekiko daraman politikari buruz aurkeztutako kontrako mozioa.

**2) Andreotti akusatuen aulkian eseri-ko da:** Giulio Andreotti, zazpi aldiz Italiako lehen ministro izandakoa, irailean epaitzea erabaki zuen Palermoko fiskaltzak.

**Mafiaren erasoa Moskun:** Errusiako hiriburuko mafiak Vladislav Listiev 'Ostankino' telebista publikoko kazetari eta zuzendari ezaguna hil zuen tiroz.

**3) Nahasketa nagusi Mexikon:** Carlos Salinas de Gortari lehendakari ohia gose greban hasi zen, beraren eta bere senideen kontra egindako salaketengatik protesta egiteko; handik 15 ordu-ra utzi zuen protestaldia bertan behera. Egun berean Mario Ruiz Massieu atxilotu zuten EEBBetan, Espainiara ihes egin nahian zebilela.

**5) Txinako Parlamentuaren urteroko batzarra:** Deng Xiaoping buruzagi gorenaren falta zela egindako batzarrean, Li Peng lehen ministroak ustelkeria baztertu baharra azpimarratu zuen diputatuaren aurrean.

**6) Gizarte Garapenerako gailurra Kopenhagen:** Mundu osoko ordezkariak bildu ziren Dinamarkako hiriburuan, pobrezia, langabezia eta azpigarapenari aurre egiteko bideak aztertze-ko. Zazpi eguneko eztabaiden ondoren onartutako deklarazioak asmo on asko baina neurri gutxi bildu zituen ordea.

**8) Lehen hildakoa 'Augusta auzian':** Jack Lefebvre Belgikako aire armadako buruzagi ohiak bere buruaz beste egin zuen. Lefebvre ustelkeriari buruzko 'Augusta auzian' nahastuta zegoen. Hilaren 22an, Frank Vanderbroucke Atzerri ministroak dimisioa aurkeztu zuen kasu beragatik.

**10) Errusiako herri defenditzailearen kontra:** Duma-k bere kargutik bota zuen Sergei Kokaliov Errusiako giza eskubideen komisariatua. Kokaliov zigortu egin nahi izan zuten lelotsinek Txetxeniako eskuhartze militarra agindu zuenetik errepublika hartan egin ditzuten sarraskiak salatzeagatik.

**Algerren izuak jota:** Algeriako hiriburuan 50 lagunetik gora zauritu zituen talde armatu islamistek leherarazi zuten bonba-auto batek. Hilabete honetan ere hilketek ez dute etenik izan.

**11) Burundi sarraskiaren atarian:** Ernest Kabushemeye Energia ministroa hil egin zuten atentatuan. Orduz geroztik hutu eta tutsien arteko enfrontamenduak larritu egin dira egunetik egunera, eta iaz Ruandan gertatutako sarraskia errepikatuko den beldur dira.

**12) Istiluak Istanbulen:** Musulman alaitak egon ohi diren tabernen kontrako atentatuak egin zituzten Turkiako hiriburuan. Biharamunean istilu larriak lehertu ziren alaituen eta ezkerreko taldeen artean. Gutxienez zortzi lagun hil ziren.

**14) Atentatu xenofoboak Italian:** Panpina batean ezkutatutako bomba batez bi haur ijitu larri zauritu zituzten Pisa hirian.

**15) Adams EEBBetan berriz ere:** Bill Clintonen aholkulariek Etxe Zurian hartu zuten Sinn Fein alderdiko lehendakaria. Lehen aldiz bere alderdiarentzat dirua jaso ahal izan zuen Adamsek EEBBetan.

**16) Dini ozta-ozta gobernuan:** Aurrekontuei egindako egokitzapenari Parlamentuan jarri zizkieten oztopoak zirela eta, Lamberto Dini lehen ministroak konfiantza mozioa aurkeztu zuen. Sei botoren aldeaz lortu zuen aginteari eustea.

**19) Kurduen kontrako erasoak:** Ankarako Gobernuak hala aginduta, 35.000 soldadu Irakeko iparraldean sartu zi-

ren, PKK-ko gerrilariei erasotzeko. Orain arte 300 lagun inguru hil dira.

**20) Atentatu masiboa Tokion:** Japoniako metroan sei lagun hil eta milatik gora toxikatu zituzten 'sarin' gasaz. Handik bi egunera gas hori osatzeko gai toxikoak atzeman zituzten 'Egia Goreneko' sektaren egoitzetan.

**23) Mosku eta Washington muturtuta:** Andrei Kozirev Errusiako Atzerri ministroak eta Warren Christopher EEBBetako estatu idazkariak amaitutzat eman zituzten Geneban bi herrialdeen arteko harreman "gozoak".

**24) Soldadu britainiarrak Belfastetik kanpora:** Ipar Irlandako bake prozesuaren barnean, Armada britainiarrak bertan behera utzi zituen urteetan Belfasten egin dituen patruilatze lanak.

**25) Integristen kontrako eraso oidea:** Algeriako armadak talde armatuen kontrako ofentsiba gogorari ekin zion. Zenbait iturriren arabera, 2.500 baino gehiago izan litezke hildakoak.

**Pertsonen mugak desagertuta:** Europako Batasuneko zazpi herrialdetan (Alemania, Belgika, Espainia, Frantzia, Holanda, Luxenburg eta Portugal) in-darrean sartu zen pertsonen zirkulazio askeari buruzko Schengen akordioa.

**27) Azken Gucciaren kontrako atentatua:** Mauricio Gucci, Gucci enpresa sonatuko semea atentatuan hil zuten

Erroman. Erasoaren barneko tirabirekin lotu dute lehen ikerketek.

**Winnie Mandela Gobernutik kanpora:** Nelson Mandela Hego Afrikako lehendakariak oraindik emaztea duena kultura ministeriotik botatzea erabaki zuen. Azkenaldi honetan polemika izugarria piztu zuen Gobernuak kideen kontrako adierazpenak eginez.

**30) Gerrila gerra Txetxenian:** Djokhar Dudaiev lehendakariaren aginduei jarraiki, indar txetxeniarrak hiri handietan

etik erretiratzen hasi ziren eta gerrila gerrari ekin zioten.

**31) Haitiko misioa Nazio Batuen esku:** Joan den irailean Haitin esku hartu zuten estatubatuarrek Nazio Batuen esku utzi zuten herrialde hartako segurtasuna zaintzeko eginkizuna.

**Hegazkin istripua Bukaresten:** Errumaniako Tarom konpainiako Airbus batean zihozan 59 lagunak hil ziren hiriburuaren inguruan izandako istripuan.

## Hileko Gaia: Inoiz baino gogorrago

Kurdistango Langileen Alderdiak (PKK) 1984 urtean hartu zituen armak Turkian bizi diren hamabi milioi kurduen independentziaren alde borrokatzeko. Orduetik 20.000 lagun baino gehiago hil dira PKK eta Armadaren arteko deklaratu gabeko gerran. Turkiako Gobernuak maiz egin du gerrilari kurduen kontra; askotan eraso diete PKK-ko posizioei, eta giza eskubideen aldeko erakundeek behin eta berriz salatu dutenez gune zibilen kontrako bonbardaketan aritu dira maiz.

Baina Turkiako kurduen kontrako operazioa ez da sekula oraingoaren neurri-

koa izan. Ankarako Gobernuak hala aginduta, Turkiak 35.000 soldadu mobilizatu zituen hilaren 19an, eta euren operazioak Turkiako hegoaldean mugatu beharrean, Irakeraino sartu ziren tanke, hegazkin eta artilleriaz. Turkiako indar armatuetako bozeramaileek atzo jakinarazi zutenenez, dagoeneko ia hirurehun lagun hil dira erasoetan.

Baina, bai Turkian bertan bai atzerrian, analista militarrek auzitan jarri dute Ankarako Gobernuaren benetako asmoa PKK-ren kontra egitea den. Haien arabera, oso litekeena da Turkiako Gobernuak Irakeko iparraldean bere eragina

## MUNDUAREN TALAIAN

indartu nahi izatea; izan ere, duela sei hilabetetik hona eskualde hartan oso nabaria baita aginte falta. Irakeko alderdi kurduak, Jalal Talabaniren UPK eta Massud Barzaniren PDK, elkarren kontrako enfrontamenduetan hasi ziren berriz ere, eta hegoalderantz egin zuten borroketan. Azken bi aste hauetan asko zabaldu dira Ankarak egoera horretaz aprobetxatu nahi duela azpimarratzen duten hipotesiak.

Tansu Ciller lehen ministroak errotik baztertu ditu horiek guztiak, eta Nazio Batuei egotzi die Irak iparraldean aginte falta eragitearen ardura. Golkoko gerra amaitu ostean, NBEko Segurtasun Kontseiluak 'Provide Comfort' operazioa agindu zuen 36. paralelotik iparraldera bizi diren kurduak babesteko. Gubernuburu turkiarraren arabera, horrek eragin du hein handi batean eskualde hartan orain bizi den egonkortasun eza.

Mendebaldeko potentziek, Estatu Batuek haien artean, onartu egin dute Irak iparralderako agindutako operazioa berraztertu egin behar dena. Hala eta guztiz ere kurduen kontrako erasoak lehenbailehen amaitu beharra daukala ohartarazi diote Turkiako Gobernuari, hark ez baitu orain artean zehaztu nahi izan operazioak noiz arte iraungo duen. Presiorik gogorrena Alemaniak

egin du orain arte, Suleyman Demirel lehendakariaren adierazpenen ondoren -"Urtebete baino gehiago ez duela iraungo pentsatzen dut"- operazioak luze joko duela susmatzen baitu. Kurduen kontrako erasoak noiz etengo zituen jakinaraz zezan exigitu zion Bonneko Gobernuak Ankarakoari, baina erantzunik jaso ez eta Turkiari agindua zion laguntza militarra etetea erabaki zuen joan den astelehenean.

Baina horrek ez zituen turkiarrak kikildu. Biharamunean erasoan jarraitu zuen armadak, eta bezperan baino indar handiagoz gainera.

### **Egia Gorenaren' atentatu nagusia**

Orain arte munduko hiririk seguruentzat jotzen zuten Tokio, baina joan zen martxoaren 20an sei lagun hil ziren eta milatik gora toxikatu, azterna guztien arabera 'Egia Goreneko' sektak eginiko atentatuan. 'Sarin' gasa erabili zuten atentatugileek Tokioko metroko geltokietan kaosa eta izua eraginez. Izua munduko beste hiri handietara ere hedatu zen; besteak beste, New York, Washington, Seul eta Hong Kongen neurri bereziak hartu zituzten. Gerra kimikorako jantziekin ari behar izan zuten soldadu eta polizia japoniarrek geltoki guztiak arakatu eta garbitzeko.

## MUNDUAREN TALAIAN

*Koldo ALDABE*

### **1995, otsaila Egunez Egun**

**1) Europa urpean:** Europa erdialde eta iparraldea urpean utzi zuten uholdeek kontentzio dikeak hausteko arriskua eragin zuten Holandan.

**5) Atentatu xenofobo oldea Austrian:** Oberwat herrian lau ijito hil zituzten atentuan. Biharamunean herrialde hartako gutxiengo kroaziarren kontra egin zuten, eta komunitate hartako gizon bat zauritu.

**6) Sarajevo setioa hausten:** Gerra hasi zenetik lehen aldiz, Bosniako hiriburuan herritar zibilen garraiorako lehen pasabideak zabaldu zituzten Nazio Batuetako indarrek.

**Turkiako mugak zabalik?:** 1996an Turkiako mugak zabaltzea erabaki zuten Europako Batasuneko herrialdeek. Erabaki hari betoa jarri zion Greziak, eta oraingoz askatu gabe dago korapiloa.

**8) Lurrikara Kolonbian:** Gutxienez 37 lagun hil ziren Kolonbiako Trujillo herria gogor jipoitu zuen astinduaren ondorioz. Lurrikarak 6,4 graduko indarra izan zuen Ritcher eskalan.

Kasko urdinak Angolara: Nazio Batuen erakundeak Afrikako herrialde hartara

7.000 kasko urdin bidaltzea erabaki zuen, bertako su-etena zain dezaten.

**9) Zapatisten kontrako erasoa Chiapasen:** Ernesto Zedillo Mexikoko lehendakariak Askapen Nazionalerako Armada Zapatistako (EZLN) buruak identifikatu eta haiek atxilotzeko agindua eman zuen. Armadak gerrilaren kontrolpeko lurak hartu zituen indarrez, eta zapatistek oihanean atzera egin zuten.

**10) Txetxeniarrak Groznitik kanpora:** Djokhar Dudaiev Txetxeniako lehendakariaren aldeko indarrak erretiratu egin ziren hiriburutik hegoaldera. Grozniko hegoko auzune batzuetako posizioei eusten jarraitzen diete ordea.

**11) Banaketa Lega Norden:** Maroni alderdi federalista erradikaleko bigarrenak dimititu egin zuen eta ezohiko kongresuak bat egin zuen Umberto Bossi buruzagiarekin. Biharamunean hura berretsi zuten alderdiko buru baktzat.

**13) Su-etena Txetxenian:** Errusia eta Txetxeniako buruzagi militarrek su-etena akordioa sinatu zuten Inguxiako errepublikan egindako negoziazioetan. Handik bi egunera, akordatutakoa be-

rretsi eta 48 orduz armak isiltzea erabaki zuten. Epe hori amaituta, ordea, Errusiak ez zuen su-etena luzatu.

**14) Chiapasko operazioak etenik:** Ustekabean, Zedillo lehendakariak zapatisten kontrako operazioak eteteko agindua eman zuen, harik eta Parlamentuak amnistia legea onartzen duen arte. EZLNk salatu duenez, ordea, militarrek erasoan jarraitu dute.

**15) Sutea Taiwanen:** Gutxienez 67 lagun hil ziren karaoke sala batean izandako sutean.

**17) Su-etena Peru eta Ekuadorren artean:** Condor mendikatearen inguruetan aurrez aurre aritutako bi herrialdeek alde bakarreko su-etena iragarri ondoren, akordioa formalki sinatu zuten Brasilian. Enfrentamenduak baretu arren, Ekuadorrek eta Peruk borrokan jarraitzen dute ordea.

**19) Aldaketa Portugalgo sozialdemokrazian:** Cavaco Silva lehen ministroak politika utzi egingo duela iragarri ondoren, Joaquim Fernando Nogueira izendatu zuen kongresu bereziak PDS-ko buru.

**20) Ustelkeria kasuak Belgikan:** Alderdi Sozialistaren legez kanpoko finantzaketari buruzko 'Augusta auzian' nahastu zituzten Willy Claes NATOk idazkari nagusia eta Karen van Miert Europako Batzordeko komisaria. Egun

horretan bertan, komisariaren bulegoa miatu zuten egoitza komunitarioan.

**21) Aldaketak Nikaraguako Armadan:** Humberto Ortegak bere boronda-  
tez utzi egin zuen Nikaraguako Indar Armatueto buruzagitza.

**22) Matxinada eta asaltoak Algerian:** Serkadjiko kartzelan atxilotutako presoek kontrako asaltoan ehundik gora lagun hil ziren, haien artean bi buruzagi integrista.

**Akordioa Ipar Irlandarako:** John Bruton Irlanda Errepublikako lehen ministroak eta John Major Erresuma Batukoak Ipar Irlandako etorkizunari buruzko negoziatuetarako akordio oinarria aurkeztu zuten. Unionistek, amorrubizian, erabat baztertu zuten testua.

**23) Bi konstituzio Nikaraguan:** Violeta Chamorrok onartu ez arren, Parlamentuak argitaratu egin zuen erreformatutako konstituzioa. Orduz gero, bi konstituzio dituzte Nikaraguan.

**25) Sinn Feinen kongresua:** Alderdi errepublikarrak bostekoa luzatu zien unionistei adiskidetu eta bake bidean aurrera egiteko. Biharamunean Londres Ipar Irlandatik tropak udarako erretiratzeko prest dagoela zabaldu zen.

**27) Borrokan Kurdistanen:** Bonba auto batek 74 lagun hil zituen Irak ipa-

rraldeko Zakhun hirian. Kontrako talde kurduak elkarri leporatu zioten atentatuaren erantzukizuna.

**28) Kasko urdinak Somaliatik kanpora:** Nazio Batuek EEBBen esku utzi zuen kasko urdinak Somaliatik erretiratzeke misioa.

## Hileko Gaia: Negoziaziorako ordua

Otsailaren 22an Londresek eta Dublink argitara eman zuten Ipar Irlandaren baketzeari buruzko Oinarrizko Agiriak alderdi politiko guztiek Ipar Irlandaren etorkizuna erabakitzeko negoziazio politikoari ekiteko oinarriak ezarri zituen. Agirian urrats garrantzitsuak eman dira eskualde horretako gatazkari amaiera eman eta autodeterminazio eskubidea onartzeko. Irlandaren etorkizuna irlandarren esku jarri dutela adierazi zuten Majorrek eta Brutonek Oinarrizko Agiriaren aurkezpenean. Hein handi batean arrazoia eman behar baldin bazaie ere, gauzak ez dira hain simpleak. Bi erreferendum iragarri zituzten: bata hegoaldeko errepublikan egingo dena eta bestea, berriz, iparrek sei konderrietan egingo dena. Irlanda bakarra dela diotenentzat ez da irtenbiderik onena hori, baina egungo errealitatea, hau da, zatiketa hartu da kontuan.

Oinarrizko Agiriak ez dio gatazkari irtenbiderik ematen, irtenbidea emateko urratsak jartzen ditu. Hori horrela izanik, lehenik alderdi politikoei eta ondoren herritarrei dagokie etorkizuneko Irlanda batua edota egungo zatiketaren artean erabakitzea. Irlandar mundu abertzalean pozik hartu da agiriaren argitarapena, egungo egoerak porrot egin duen adierazletzat jo baitute. Hori dela eta, eta lehenbizikoz Irlandaren batasuna gauzatzeko aukera irekita dagoenez, ongi etorria eman diote agiriari, berau hobeto aztertzeke denbora hartuko dutela esan duten arren. Agiriari trabak alde unionistak jarri dizkio, eta bake prozesuari boikota egingo diola mehatxatu du. Mehatxua beteko duenentz ikusteko dago, baina alderdi unionistek ez bezala, militante unionistek argi utzi dute negoziazio mahaira joan beharra dagoela, ia hiru laurdenek iritzi diote hori. Adierazgarria da, iritzi

hori argitara eman eta hurrengo egunean, talde armatu unionistek agiria gaitzetsi arren su-etenari eutsi egingo diotela iragarri izana.

Ipar Irlandako gatazkari amaiera eman eta eskualde horren etorkizuna erabakitzeko negoziazioei ekin beharra dago orain. Gutxienez uda arte itxaron beharko da elkarrizketak hasi arte, eta birtarte horretan gauza askok gertatu beharko dute hasiko badira: indar politiko unionistek negoziazioetan parte hartuko dutenentz erabaki beharko dute; Londresko Gobernuak eta Sinn Fein alderdi politiko errepublikarrak Irlandar Armada Errepublikarraren (IRA) desarmeari buruz -Londresek IRA desarmatzeko exigitzen du Sinn Feinek elkarrizketetan parte har dezan-, presoiei buruz eta Armadaren erretiratzeari buruz dituzten eztabaidak konpondu beharko dituzte; IRAk su-etena luzatzen duententz erabaki beharko du, bere barne araudiaren arabera treguan 11 hilabete iragan ondoren egoera berriro aztertu eta jarraipena emango dion ala ez erabaki beharra baitauka.

Alderdi guztien artean eztabaidatu beharrekoa den agiria paper errea izan liteke aurreko baldintza horietakoren bat betetzen ez baldin bada.

### Nazioartearen porrota Somalian

Somalian duela bi urtetik gora hasieran EEBBek eta ondoren Nazio Batuek gerraren eraginez goseak hiltzen ari ziren milaka herritarrei laguntza humanitarioa bideratu eta bide batez klanen arteko gerrari amaiera emateko egin zuten misioa porrot galanta izan da. Otsailaren 27an hasi ziren erretiratzen bertan zeuden kasko urdinak marine estatubatuarren laguntzaz. Erretiratzea martxoaren 3an amaitu zen. "Ikasgaia ondo ikasita" itzuli dira etxera Washingtonek aitortu duenez, baina Somalian ez da ezer konpondu; aitzitik, NBERen misioak bakea eragozti duela diote somaliarrek.

